

4 Udalerri euskaldunen bilakaera sozio ekonomikoaz

Imanol Esnaola

Gaindegia (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia)

bulegoa@gaindegia.eus

Sarrera-data:L 2015-03-30 | Onartze-data: 2015-06-15

Laburpena. Gaindegiak UEMAren enkarguz udalerri euskaldunetako azken urteotako bilakaera sozio ekonomikoa aztertu du hainbat arlotan. Emaitzak argiak dira, etxebizitza berri kopuru handiak eraiki dira, bertako biztanleek lehen baino proportzio txikiagoan lan egiten dute herrian bertan, gazteen artean gero eta proportzio txikiagoa da herrian bertan bizitzen jarraitzen duena. Aldi berean, etxeak egin izanak inguruko herrietatik jende ugari erakarri du, haurrak izateko adinean dagoena edo helduagoa. Azken batean, komunitate hauetan eragin handiko aldaketak gertatu direla diote datuek. Aldaketa prozesu horretan, ordea, ez da kontrol neurririk izan eragin linguistikoa zaintzeko, ez erabileraren planifikazioari dagokionez, ez harrera prozesuari dagokionez. Gainera, zenbait udalerri are egoera larriagoan geratu dira, inguruko herrietan euskarak duen egoera minoritarioagatik. Esandakoak ondorio sakonak ditu, egoera hauek euskarak aitortza ofiziala duten inguruetan ere gertatzen ari baitira, beraz, legedia hauek euskararen erabilera soziala nagusi den eremuetarako dituzten ezintasunak agerikoak dira. Ezinbestekoa gertatzen zaigu, udalerri euskaldunetako hizkuntza arau eta ohituren oinarriak zein diren zehaztu (aztertu, ezagutu), horien babeserako bideak aurkitu eta interbentzioak zehaztea. Hasteko interbentzio negatiboak kontrolatuz, ondoren interbentzio positiboak gauzatu. Eta bitartean, galera nabarmenak izateko arriskuan dauden herrietan neurri zuzentzaileak erabaki eta aplikatu. • *Hitz gakoak:* udalerri euskaldunak, eragin linguistikoa.

Abstract. The Social Services Organisation Gaindegia was commissioned by UEMA to conduct a study into the socioeconomic evolution over the last few years in the most Basque-speaking municipalities. The results are clear: large numbers of new homes have been built, a smaller proportion of the local inhabitants work in the locality itself, and the proportion of young people continuing to live in the locality itself is continually falling. At the same time, the building of homes has drawn many people who are of childbearing age or older from the neighbouring localities. According to the data, changes that have had a major influence on these communities have taken place. In this process of change, however, there have been no control measures to limit the linguistic effect, neither with respect to use planning nor with respect to the reception process. What is more, the situation in some municipalities has become even more serious because of the minority situation of Basque in the neighbouring towns and villages. This has far-reaching consequences because these situations are also emerging in areas in which Basque is officially recognised and, as a result, these laws have revealed their difficulties in the areas where the social use of Basque is the dominant one. We simply have to specify (examine, get to know) the bases of the language rules and habits of the Basque-speaking municipalities to find ways to protect them and to specify intervention. Firstly, to control the negative interventions and secondly, to implement positive intervention. And in the meantime, to decide and apply corrective measures in the localities at greatest risk of sustaining losses. • *Key words:* Basque-speaking municipalities, language influence.

AURREKARIAK

I

Zein dira komunitate batean hiztun komunitateak ezarritako arauak (hizkuntza jakin baten erabilera) aldarazten dituzten eragileak? Galdera honen erantzunak ez du eskatzen eraso edo egiturako aldaketen inbentarioa egitea bakarrik. Horrezaz gain, ezinbestekoa da euskara nagusi duten eremu geografikoetako egoerak zertan diren teorizatzea. Urrats horren ondoren eta soilik ondoren iritsiko gara ulertzera gertatzen ari diren egiturako aldaketek euskal hiztun komunitate naturalen oinarrietan duten eragin linguistikoa. Eta horrela neurtzeko eta aplikatzeko eredu bat izatera ere iritsiko ginateke.

Izan ere, euskal hiztun komunitate naturalen egituran errotiko aldaketak gertatzen ari dira. Familietan euskara ez den beste hizkuntzen presentzia handitzen ari da, kalean, sare sozialetan gazteleraren edo frantsesaren erabilera orain gutxi arte agertzen ez zen harremanetan agertzen da. Euskal hiztunek ez diote euskaraz mintzatzeko ohiturari iskin egin, ingurua aldatu egin zaie eta egokitu egin behar izan dute, ezin bestean, hori besterik ez (!).

Modu grafikoan esanda, Espainian nagusi izan zen Francoren erregimen zapaltzaileak udalerrri hauetan lortu ez zuena gertatu da honen ondorengo erregimenean: euskal hiztun komunitate naturaletan gazteleraren edo frantsesaren erabilera soziala bere lekua egiten hasi da, eta ondorioz hiztun askoren hizkuntza identitatea (eta erabilera) euskaldun izatetik hibridoa izatera pasa da. Ez da norberaren elebiduntasunari lotutako gertaera, erabilera sozialari lotukoa baizik.

Aurrekarietan ez genuke esan gabe utzi behar azken hiru hamarkadak izan direla, segur aski, Euskal Herriak ezagutu dituen intentsoenak maila guztietan, kulturalen ere bai. Elkarrekin uztartu dira aldaketa politikoak (lurraldetasun berriak, demokrazia errepresentatiboa, lege babesak eta erasoak), teknologiko-kulturalak (telebista, internet, automobilaren erabilera), sozialak (mugikortasuna, dibertsitatea, globalizazioa...) eta ekonomikoak (errekobertsio industrialak ekarritako aldaketa guztiak). Aldaketa gehiegi, beraz, udalerrri euskaldunetan zein bere hiztunen baitan.

Luze jardun gintezke fenomenologia hau guztia aztertzen ikuspegi soziologiko eta antropologikotik. Amaigabeko aipamenak egin genitzake hizkuntza ordezkapenaren teorikoek nahiz baztertutako hizkuntzak indartzearen aldekoek egin dituzten aipamenez hitz egiten. Gertatu dena gertatu da, ordea, euskal hiztun komunitate naturalek, mendez

Euskal hiztunek ez diote euskaraz mintzatzeko ohiturari iskin egin, ingurua aldatu egin zaie eta egokitu egin behar izan dute, ezin bestean, hori besterik ez (!).

***Euskal hiztun
komunitate
naturalek,
mendez mende
euskaldun izan
direnak
erdalduntzen
hasi dira
euskararen
erabilera eremu
berrietara hedatu
eta euskarak
inoizko prestigio
eta babes sozialik
handiena
duenean.***

mende euskaldun izan direnak erdalduntzen hasi dira euskararen erabilera eremu berrietara hedatu eta euskarak inoizko prestigio eta babes sozialik handiena duenean. Zerbaitek huts egin du. Iñaki Iurrebasok egindako lanak utzitako emaitzak esaten dugunaren erakusle dira (ikus: “Udalerrri Euskaldunak EAE-n: Egoera eta bilakaera 1981-2011” in www.uema.eus/azterketak).

LANAREN XEDEA

I UEMAK GAINDEGIARI (Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia, www.gaindegia.eus) udalerrri euskaldunek azken hamarkadetan izan duten bilakaera sozio-ekonomikoaren azterketa egin zezan eskatu zion.

Honela, GAINDEGIAk azken hiru hamarkadetako bilakaera jarraitzeko moduko informazioa zein izan zitekeen katalogatu eta haren gaineko azterketa egitea proposatu zuen. Katalogazio horrek, agerikoa denez baditu hainbat gabezia. Ez dago udalerrri guztietarako homogenea den informaziorik, kasurik onenean Hegoaldeko udalerrietarako informazioa dugu eta txarrean Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako udalerrietarako. Helburu honetarako Ipar Euskal Herriko udalerrietarako dagoen informazio bateragarria ia hutsa da, demolinguistikoa batez ere.

Gauzak horrela, eskura genuen informazioarekin eta euskal udalerrien geografiaren zatirik handienaz argibideak eskuratu genitzakeela jabeturik, aurrera egin genuen. Ziur ginen ez ginela udalerrri guztiak elkarrekin konparatzera iritsiko, baina bagenekien udalerrri euskaldunetan gertatzen ari ziren aldaketa sozio-ekonomiko lokalak (ez makroekonomikoak) neurtzera iritsiko ginela, eta lagungarri gertatuko zela datu bilakaera demolinguistikoekin uztarturik.

Lehentasunez hiztun komunitatearen osaerari dagokion informazioa usiatzeari ekin genion, besteak beste: Elementu demografikoak (biztanle kopurua, adin taldeak, zahartzeak...), sozialak (biztanleen jatorria, mugikortasun ohiturak, zerbitzu sozialen eskuragarritasuna, errenta maila...), ekonomikoak (bertako jarduera ekonomikoaren ezaugarriak...) edo hirigintzarekin lotutakoak (eraikitako etxebizitza kopurua, nolakotasuna, okupazio maila).

Horretarako, berriz, biztanle eta etxebizitza zentsuaren datuak, errol-darenak, enpresa eta establezimenduen direktorioa eta beste zenbait iturri baliatu genituen. Jo txostenetara xehetasunez ezagutzeko: www.uema.eus/azterketak).

Datuen ustiapenarekin azken hiru hamarkadetako bilakaera ezagutu eta egungo egoeraren gaineko argazki nahikoa zehatza izatera iritsi ginen.

EMAITZAK

I

Datu zehatz eta jakingarri ugari utzi digu egindako ustiapenak. Irakurleak eskuragarri ditu UEMAre web orrian, baita datuen kontsultarako aukera ematen duen atlas dinamiko bat ere. Ez gara, beraz, lan honetan xehetasunak aipatzen hasiko, baina zinez jakingarriak di-relakoan, irakurleari iturrietara jo dezan gomendioa egiten diogu.

Emaizta zehatzetan hasi aurretik esan beharrekoa da, xehetasunetara jota, ez dagoela errealitate bakar bat analisiaren emaitzetan. Ez da gauza bera udalerrri txikia izan (500 biztanletik beherako) ala handia (Zarautz, Azpeitia, Ondarroa..) ez da gauza bera, eskualde buru euskalduna izatea (Urola-Kostan esaterako) ala ez (Hondarribia eta Oiartzun). Halaber, ez da gauza bera jarduera ekonomikoen muinean kokatuta egon (A1 errepidea, AP8 inguruan...) ala jarduera eremu bi-zietatik urrun egon (Malerreka, Busturialdea...).

Gauza bera esan daiteke etxegintzari buruz, erabateko lotura duena indarrean dauden lurralde planeamenduekin eta tokiko instituzioen lurralde antolamendu egitasmoekin (Udalak eta Aldundiak dira hor protagonistak nagusiak). Eta azkenik, ez da gauza bera, euskaltasunarekin konprometitutako gehiengo duen lurralde batean gertatzen dena (Gipuzkoa eta Bizkaia) eta beste batzuetan gertatzen dena (Nafarroa Garaia).

Beraz, asko eta ugariak dira egin daitezkeen nabardurak, eta horri esker etorkizunean datu sozio ekonomikoak hizkuntzaren ezagutza eta erabilerarekin zein lege babesarekin uztartuz, ikusi ahal izango dugu zenbaterainoko eragina duen bakoitzak. Aldeko politikak zenbatean eraginkor izan diren, batez ere.

Emaizzei dagokionez hauxe esan daiteke:

Urte hauetako bilakaeraz:

- Etxebizitza berri ugari eraiki da, kasu askotan, herrialdeko batz bestekoen gainetik. 500 biztanletik beherako udalerrietan intentsitate handiagoz.

- Biztanle kopuruak gora egin du, inguruko herrietan jatorria duten pertsona asko etorri da udalerri euskaldunetara bizitzera. Gehienak 30 urtetik gorakoak eta zenbait kasutan 50 urtetik gorakoak nabarmen.
- Helduen adin taldeek indarra hartu dute eta bertan gizarteratutako gazteen belaunaldiak pisua galdu du. Bertako gazte belaunaldiak helduen talde mistoen ondoan (bertako eta kanpokoez osatuak) presentzia galdu dute, beraz.
- Halaber, udalerri berean bizi eta lan egiten duten herritarren proportzioa nabarmen gutxitu da. Horien artean daude bertako herritarrak zein kanpotik etorritakoak. Oro har, beraz, bertako sareak kide naturalak galdu ditu eta sare berriak gorpuztean bertakoen presentzia gutxitu egin da (eta eragina ere bai).

Honekin guztiarekin batera, eskualde buru edo inguru euskaldunena zuten udalerrientzat erdaldundu da gehien ingurua (zonaldeko zein eskualde buruko euskal hiztunen proportzioak gehien apaldu diren eremuak dira, ikus “Udalerri Euskaldunak EAE-n: Egoera eta bilakaera 1981-2011” *in* www.uema.eus/azterketak).

Uneko egoeraz:

Bizi izandako aldaketak aipagarriak baldin badira, badira geroan indarrez eragin dezaketen beste ezaugarri edo joera batzuk, esaterako:

- Udalerri euskaldunetan egitura ekonomikoak ezaugarri industrial garrantzitsua du kasu askotan (ez guztietan) baina maila teknologiko apalenekoak izanik, pentsatzekoa da zalantzazko etorkizuna dutela. Dagoeneko Tolosaldean azken urteotan gertatutakoak aski argibide ematen digu eremu hauen etorkizuneko osasun ekonomikoaz.
- Herritarren formazio maila, batzuek bestekoa baino apalagoa da, beraz, lan merkatuan txertatzeko aukera gutxiagorekin. Periferizazio ekonomikoaren eraginez, bere euskal hiztunen galera handiagoa etor daiteke (desplazatu beharra kalitatezko enpleguen bila), formazio maila altuenekoen kasuan batez ere.
- Zerbitzuen eskuragarritasuna (egin beharreko distantzia) ere kasu askotan handia da. Hots, inguru linguistiko erdaldunagoetara eramaten ditu euskal hiztunak, eta kasu askotan, ez da erraz

gertatzen udalerri euskaldunean bizitzen jarraitzeko hautua, zailtasunen bat agertzen denean batez ere (osasun arazoak, esaterako).

HIPOTESIAK

I

Hiztun komunitate naturalek ez dute berariaz erabaki euskaldun izatea edo izaten jarraitzea. Bere baitan euskaraz bizi eta euskararen presentzia normalizatzeko elementu aktiboak izateak (pertsonak, organizazioak, instituzioak, zerbitzu teknikoak...) ez du esan nahi horiengan dagoenik gainerako herritarren hizkuntza praxia eta are gutxiago hizkuntza praxi horren bilakaera.

Euskararen aldeko osagai horien guztien garrantzia ukatu gabe, geure buruari galdetu beharko genioke zein neurritan eta zein modutan eragiten duen komunitate baten baitako sare desberdinetan hizkuntza ohitura desberdinak (eta hegemonikoak) dakartzaten pertsonen presentzia masiboak (esaterako guraso gazteen sareetan, edo euskalduntzeko borondatek ez duten ezkontideen kasuan).

Indarrean egon den etxebizitza politikak udalerrietako biztanleria gatzetzarekin batera, berebiziko bultzada eman dio sare sozial eraginkorrenetan (guraso-lagunarteak, merkataritza-ostalaritza...) euskararik gabeko harreman ohiturei hainbat kasutan. Aldiz, eremu sozial euskaldunen eraginkortasuna apaldu du (adinekoen zahartzeak belaunaldi berrien nagusigoa ekarri du; hizkuntza ohitura berrietako umeen presentziak haurren lagunartean ohitura eta erreferentziak berriak ekarri ditu; mugikortasun laboralak, bertako elementu aktiboenen ausentzia linguistikoa ekarri du...). Hots, gure buruari galdetu behar genioke ea paradigma egokiaz aztertu eta antolatu dugun udalerri euskaldunetako euskal hiztunen eta praxien babesa.

Alde horretatik, gogotik proposatuko nuke antropologiaren eremutik hainbat lan egitea, esaterako, herritar berriek nola ikusi duten hartu dituen inguru linguistiko euskalduna, nola bertako instituzioen mezu eta programak, esaterako. Berdin aztertu beharko litzateke nola bizi izan duten aldaketa bertako hiztunek, belaunaldi bakoitzak bizipen bereziak izango dituela kontua hartuz.

Gurean ohituta gaude euskararen erabilera eta geroratzea nazio arazo moduan ikustera eta nazio arazo gisa planteatzen, sarri, hizkuntzaren estatutu sozialaren oinarria desberdina izan daitekeela ohartu gabe. Hau da, euskararen estatutuari eutsi edo hobetzeko oinarri desberdineko

**Hiztun
komunitate
naturalek ez dute
berariaz erabaki
euskaldun izatea
edo izaten
jarraitzea.**

***Gurean ohituta
gaude euskararen
erabilera eta
geroratzea nazio
arazo moduan
ikustera eta
nazio arazo gisa
planteatzen,
sarri,
hizkuntzaren
estatutu
sozialaren
oinarria
desberdina izan
daitekeela ohartu
gabe.***

***Urte hauetan
lurralde
politikak eta
hizkuntza
politikak ez dute
elkar ulertu.***

egoeretan egin behar den aldetik, lehenetasunen hurrenkera beti ez dela bera. Udalerrri euskaldunetako elementu eragileen lehenetasunen zerrenda egin behar genuke.

ONDORIOA

I
Urte hauetan lurralde politikak eta hizkuntza politikak ez dute elkar ulertu. Lurralde politikak osagai geoestrategiko eta ekonomiko bete-arazleak izan ditu, hizkuntza politikak, aldiz, borondate mailakoak gehien bat. Borondateak ezin du egiturako irizpideen kontra borrokatu, are gutxiago aldaketa bizian nozitzen ari diren komunitate hauetan, non indarrean dauden arauak unean uneko adostasunei lotzen zaien.

Horrek, ordea, berebiziko eragina izan du udalerrri hauetako egitura eta sare sozialen konposizioan, eta ondorioz egitura hauetako hizkuntzaren erabilera arau eta ohituretan.

BALIZKO LAN ILDOAK

I
Azterketa eta analisiaren mailan, arestian aipatutako bidetik, ezinbestekoa da ezagutzea nola bizi dituzten prozesuok komunitate hauetan, bai bertakoen aldetik, bai bertara joan berria denaren aldetik. Aztertzekoa da nola bizi dituzten irizpide politiko eta sozialak (administrazioarenak, UEMARENak, talde politiko eta sozialenak), nola indarrean jarritako planak edo inguru linguistiko berriak.

Ekintza sozio-linguistikoaren mailan, harrera prozesu gordina bizi dute udalerrri hauek. Harrerak bi alde ditu, biak aktiboak, bertan dauden hiztunen portaera eta joan berriarena hartu behar dira aintzat. Harrera egoki baterako planak, irizpideak eta baliabide zehatzak behar dira herri hauetan guztietan. Bai udal administrazioan, bai bertako ikastetxe, eskualtegi zein eragile sozio-kulturaletan.

Ekintza sozio-ekonomikoari dagokionez hizkuntza ohiturak gorde eta euskararen mesedetan berritzeak jarduera ekonomiko endogenoen sustapena eskatzen du, bai eta bertako herritarrei enplegua emango dieten jarduera berriak bultzatzea ere, lana euskaraz egiteko borondatea duten enpresena lehenetasunez. Maila teknologiko jasoa dutenak edo ezagumenduaren erabilera intentsiboan direnak batez ere. ●